



Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak pozik hartu dute epaitegiaren erabakia Hala Bedi Irratiaren kasuan

Gasteizko epaitegiak Mikel Sainz de Buruagaren aurkako isuna baliogabetzea erabaki du.

Gasteizko epaitegi batek Ertzaintzak 2017an Hala Bedi Irratiko kazetaria den Mikel Sainz de Buruagari ezarritako isuna baliogabetzea erabaki du. EAEko Segurtasun Indarrek autoritatearen aurkako desobedientzia leporatzen zioten “kordoi poliziala apurtzeagatik eta ertzainen aurka egiteagatik” eta horregatik, ‘Mozal Legea’ aplikatuta, 602 €ko isuna eskatzen zioten. Azpimarratu beharra dago Eusko Jaurlaritzak kazetari bat 'Mozal Legea'rekin zigortzen zuen lehenengo kasua zela hau.

Gasteizko epaitegiko erabakiak epaiketa tasa eta kostuak Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak ordaintzea eragingo du, eta bide batez, beste behin ere, ‘Mozal Legearen’ injustizia agerian lagatzen du.

Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak pozik hartu dute epaitegien erabakia eta Hala Bediko lankideak zein Mikel Sainz de Buruaga zoriondu nahi dituzte gaur arte injustizia honen aurrean izan duten jarrera baketsuagatik.

Hala Beditik eta KEE-CVP-k zein EKE-AVP-ek salatu zuten, 2016ko ekainaren 22an, Eusko Jaurlaritzak "Mozal Legea ez aplikatzeko konpromisoa" hartu zuen. Orduetik, ordea, isunak, prozesu judizialak eta kazetarion aurkako erasoak mantendu izan ditu.

EKE-AVP eta KEE-CVP-etik berriro ere gogorarazten dugu 'Mozal legak' informazio eskubideari zuzenean erasotzen diola eta, beraz, komunikabideetako profesionalek garatzen dugun lanari ere. Horregatik 'Mozal Legea' berehala kentzea eskatzen dugu.